296. zk.
Bigarren aroa
Martxoak 1
2017

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Erreportajea
Txingudi Beer Week.
6.-7. orrialdeetan

Kirolak
Aitzpea Gonzalez eta Ander Legazkue arraunlariak.
8. orrialdean

BAI ONAK INAUTERIAK!

3 Argazkiak Inudeak eta artzainak.
4-5 Argazkiak Inauteriak.
9 Kirolak Jon Vazquez, Bidasoako jokalaria.
10 Kolaborazioa Gorka Martinez - Ibardin-Ibardin ibilbide biribila.
11 Haurren Leihoa
12 Gazteen Lanak
13 Gaztea Kontzertu pedagogikoak.
14 Gazte infor
15 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL
GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169
CASER BETHARRAM

Argazki lehiaketa

Ainara Lertxundi
Pausoka Akademia Irungo Inauterietan.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

IUA: 42757

Txanaleta plaza

1985eko urriaren 30eko Osoko Bilkuran, L.U.K.T.k Txanaleta izena proposatu zuen, Colon ibilbidearen amaieran, trenbidearen gainean, Hondarribia eta Geltokiko kaleak lotzen dituen zubiaren ondoan dagoen plazatxoarentzat.

Trenbide gaineko pasabidea eraiki baino lehen toki honetan zegoen toponimo bat berreskuratzen du, zonalde honetatik igarotzen zen erreka baten izena baita. Beraz, Txanaleta izena, 1890ean Pedro Aristegik proiektatu zuen Hondarribiko bide berriaren planoan ikus daitekeen bezala, egungo Jacobo Arbelaitz kalea ren inguruan, trenbidearen ondoan zegoen etxe baten izena zen. Etxe horren ingurutik erreka bat pasatzen zen, Pio XII plaza ingurutik zetorrena, eta trenbide azpitik igaro ondoren, Bidasoa ibairantz jotzen zuena, azkeneko zatian kanal bilakaturik. Aurreko plano batean, 1863ko Antonio Kortazarrenean ere, gauza bera ikus daiteke.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun.
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com
Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLITICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Inudeak eta Artzainak-Kaldereroak

Kaldereroek eta Inudeek eta Artzainek eman zioten hasiera Inauterietako asteari.

Olaizola
Immobiliaria agentzia

- Salmenta-Alokairuak
- Promozio berriak
- Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Inauteriak 2017

Kontrastea: herri inauteri tradizionala eta konpartsen desfile modernoa.

CENTRO
KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Artisau garagardoaren astea da Irunen

25 ekoizle bilduko dira martxoaren 4an eta 5ean Ficoban

Otsailaren 27an hasi da Txingudi Beer Week, artisau garagardoaren astea. Anzaran plazan dagoen Boulevard garagardotegian izan da inaugurazioa. Asteartetik ostegunera, dastaketak eta *Meet the brewer* topaketak egongo dira Gipuzkoako leku ezberdinetako zenbait tabernatan. Hitzordu nagusiak, ordea, asteburuan iritsiko dira. Martxoaren 3an, ostiral iluntzean, Kalebirra egingo dute, Kale Nagusitik Urdanibia plazara. Larunbatean eta igandean, martxoaren 4an eta 5ean, azoka izango da, Ficoban.

2015 urtean antolatu zuten, lehen aldiz, Txingudi Beer Week artisau garagardoaren astea. Irungo eta Hondarribiko 18 taberna eta elkartetan egin zituzten, orduan, jarduera guztiak. “Baliabiderik gabe, lagunen artean antolatutako zerbait izan zen hura. Esperientzia gisa ondo egon zen, eta asko ikasi genuen. Baina jendeak zerbait gehiago eskatzen zigun”, aitortu du Boulevard garagardotegiko Mikel Lluciak. Antolatzaile izan zen orduan Boulevard, baita oraingoan ere, Estebenea jatetxearekin eta Bidasoa Basque Brewery (Irun) eta Mala Gissona (Oiartzun) produktoreekin batera. Artisau garagardoaren munduan murgiltzen hasi zirenean, inguruko ekoizleak ezagutzen ez zituztela onartu du Estebenea jatetxeko Igor Eizagirrek: “Belgikako garagardoekin hasi ginela gogoratzen dut. Gero konturatu ginen inguruan ere bazeudela halako garagardoak. Naparbier zegoen Noainen, Gross Donostian…”

Aurten, indarrak batuta, tamaina handiko azoka antolatzea erabaki dute, eta Ficoba erakustazokara jo dute horretarako. Bertako arduradunek laguntza handia eman dietela baieztatu du Lluciak: “Pabiloia baino gehiago eskaini digute. Izapideak, kontratuak, segurtasun neurriak... Guzti horretan ezinbestekoa izan da Ficobaren babesa”. Gainerakoan, nahikoa esperientzia eta kontaktu dute antolatzaileek. Harreman zuzena dute inguruko ekoizleekin, baita banatzaileekin ere. Haien bidez, atzerriko garagardo egileen parte hartzea lortu dute. “Bertako banatzaileak inportatzaileekin harremanetan jarri dira, eta inportatzaileak, atzerriko ekoizleekin. Kateak ondo funtzionatu du”, azaldu du Mikel Lluciak. Guztira, 25 ekoizlek parte hartuko dute azokan.

Ostiralean, martxoaren 3an iritsiko dira ekoizleak, haien stand-ak Ficoban muntatzeko. Gauean afaria egingo dute, baina lehenago, Kalebirra ekimena prestatu dute antolatzaileek. Poteo txiki bat egingo dute, 19:00etatik 21:00etara, Kale Nagusitik Urdanibia plazara, The Bohemian, Orrua, Kabigorri, Sandwico, Altzola eta Aia tabernetan. Denetan, artisau garagardo ezberdinak dastatzeko aukera egongo da. Gainera, ekoizleekin hitz egin ahal izango du interesa duenak. Kalebirraren beste helburua azaldu du, halaber, Lluciak: “Atzerriko ekoizleei, hemen daukagun poteatzeko ohitura erakutsi nahi diegu”.

Asteburuko hitzorduak, Ficoban

Larunbatean, martxoaren 4an, 11:00etan zabalduko ditu ateak Ficoba erakustazokak. Bost euroren truke, edalontzia jasoko du bisitariak, eta 25 ekoizleen garagardoak dastatu ahal izango ditu. Kalebirran bezala, produktoreekin harreman zuzena edukitzeko aukera ere izango du. Tailerrak egongo dira asteburu osoan zehar, eta haurrentzako puzgarriak ere bai. “Familia osoarentzako plana izan daiteke, garagardoa edan nahi ez duenarentzat, bi euro balioko du sarrerak, edalontzirik gabe”, zehaztu du Mikel Lluciak. Jatekoa ere izango da Ficoban, zortzi food truck egongo baitira. Larunbatean 00:00ak arte egongo da azoka zabalik. Igandean, aldiz, 11:00etatik 21:00etara.

Ficobako lehen esperientzia izanik, Mikel Lluciak nahiago du bisitari kopuruaren inguruko aurreikuspenik ez egin. Onartu du, dena den, eskualdetik kanpoko jendea espero duela: “Gipuzkoa osotik hurbilduko dira bisitariak, eta inguruko lurraldeetatik ere bai”. Ficoba erakustazokaren kokapenagatik, Iparraldeko jendea espero daiteke. Eta ez horregatik bakarrik: “Garagardo zale asko dago Ipar Euskal Herrian, baina artisau askorik ez. Horregatik, asko estimatzen dituzte Hegoaldeko ekoizleak”. Izan ere, maila handiko garagardo produktoreak sortu dira, azken urteotan, Bidasoan eta inguruko eskualdeetan. “Europa mailan aitortza jaso dute Bidasoa Basque Brewery, Mala Gissona edo Basqueland Brewing garagardoek”, adierazi du Mikel Lluciak. Gero eta gehiago hedatuz doa artisau garagardoaren kultura.

Txingudi Beer Week artisau garagardoaren astearekin, bereziki, sektoreko erreferente bilakatu da Behe Bidasoa eskualdea. Duela hamaika urte Boulevard garagardotegian hasi zenean, ordea, halako zerbait imajinatzea zaila zen Mikel Lluciarentzat (Irun, 1978).

Nolatan animatu zineten artisau garagardoa eskaintzen hastera?
Tabernaren aurreko jabea hasia zen, Belgikako eta Alemaniako garagardo batzuekin. Guk bide horri eustea erabaki genuen. Hasieran zaila izan zen, inguru honetan artisau garagardoarekin lan egiten zuen banatzailerik ez zegoelako. Bartzelonako, Castelloko, edo Malagako banatzaileekin lan egiten genuen. Gainera, bezeroek ez zuten artisau garagardoa ezagutzen.

Noiz hasi zen kultura hori zabaltzen?
Aldaketarik handiena eman da, gure inguruan ekoizleak martxan jartzen hasi direnean. Hemen, jendeak asko estimatzen du bertako produktua, eta hori positiboa da. Bide batez, bertako produktua ezagutzearekin batera, artisau garagardoaren kulturan murgildu da jendea. Guk, gainera, beste abantaila bat dugu orain, banatzaileak ere artisau garagardoarekin animatu direlako.

Dena den, lan handia egin beharra dago, oraindik, artisau garagardoaren kultura hedatzeko. Ardoaren kultura askoz barneratuagoa dugu inguru honetan. Hemen, poteoan, hogei garagardo har ditzakegu. Artisau garagardoarekin, ordea, hobe da bi hartzea, baina patxadaz dastatzea.

Edonola ere, gero eta taberna gehiagotan dasta daiteke artisau garagardoa.
Bai, eta pozgarria da guretzat. Hasi ginenean, bakarrak ginen, eta beste tabernariak animatzen saiatzen ginen. Gaur egun, elkarri laguntzen diogu. Baten batek Kabigorrin artisau garagardo bat probatzen baldin badu, hona etortzeko gomendatuko diote, eta alderantziz. Hori da gure filosofia.

Artisau garagardoaren zaleak bakarrik hurbiltzen zaizkizue, edo auzoko bizilagunak ere bai?
Argi dago gure taberna gero eta zentratuago dagoela garagardoan. Alde horretatik, erreferentea da. Baina lortu dugun zerbait da auzoko jendea, poteoan dabilena, artisau garagardoaren zale egitea. Jendeari lehen pausoa ematea kostatzen zaio, baina behin animatuta, gustua hartzen dio.

Hiriaren erdigunean ez egoteak kalte egiten dizue?
San Juanen edo Urdanibia plazan egongo bagina, beharbada jende gehiago edukiko genuke. Baina ezingo genioke planteamendu berdinari eutsi. Hemen adibidez, garagardoa dastatzeko kopa bereziak ditugu. Kale Nagusian, sanmartzialetan, ezingo genituzke erabili.

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

BAKAILAOA DASTA EZAZU
RJ BACALAO
bacalaos SANTYMAR
la barajilla
Egullor

Nazioarteko lehia helburu

Espainiako selekzioko ontzietan sartzeko lanean dabiltza Aitzpea Gonzalez eta Ander Legazkue



Guadalquivir ibaiko uretan aritu dira Santiagotarrak Kirol Elkarteko Ander Legazkue (1997) eta Aitzpea Gonzalez (1998) arraunlariak, otsailaren 12tik 19ra. Astebetez izan dira Sevillan, 23 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin kontzentratuta. Udaberrian eta udaran nazioarteko txapelketetan parte hartuko duten ontzietan lekua lortzeko helburua dute biek.

Bidasoa aldeko negu hotza atzean utzita, gustura ibili dira arraunlariak Sevillan. Eguraldi eguzkitsua eta tenperatura gozoak topatu dituzte Andaluzian. Eragozpen bakarra, haizea izan dela adierazi du Aitzpea Gonzalezek: "Gainerakoan, baldintza onak eduki ditugu. Ibaia zabala da Sevillan, hemen ez bezala". Pisu astuneko lauko ontzian entrenatzen ibili da Gonzalez. Ander Legazkue taldekideak, aldiz, pisu arineko zenbait ontzi probatu ditu. "Federazioaren lehentasuna bikoa da, horretan lehiatuko dira arraunlari onenak", adierazi du Legazkuek: "Nik ahalegina egingo dut, baina zaila izango da bikoan egotea. Bestela, laukoan egon nahi nuke".

> "Gogo handia behar da maila honetan entrenatzeko"
> **Ander Legazkue**

Edonola ere, otsaileko kontzentrazioa ez da erabakigarria izan. Aste Santuan osatuko dituzte behin-betiko ontziak, Kataluniako Banyolesen egingo duten estropadaren ondoren. "Orduan, ahalik eta maila onena ematen saiatu behar dugu, bertako emaitzek denboraldia markatuko dutelako", azaldu du Ander Legazkuek. Selekzioko ontzietan sartzea eta nazioarteko lehiaketetan parte hartzea da Santiagotarrak-eko bi arraunlarien helburua. Atzerrian egon izan dira, lehenago, jubenil mailan, Gazteriaren Kopan. Gazteen Europako Txapelketa baten modukoa da. Aurten, 23 urtez azpiko Munduko Txapelketa dute erreferentzia nagusi. Uztailaren amaieran izango da, Bulgarian.

Selekzioaren mailan aritzeko ahaleginak

Zortzigarren urtea dute Legazkuek eta Gonzalezek Santiagotarrak K.E.n arraunean. Infantil mailan hasi zen lehenengoa, eta alebin mailan bigarrena. Gustura dabiltza gaur egun, baina onartu dute, goi mailan aritzeko, ahalegin handia egin beharra dagoela. Egunero entrenatzen du Ander Legazkuek, eta asteburuetan, lagunak afaltzera edo parrandan ateratzera doazenean, berak etxera joan behar izaten du. "Goizeko zortzietan entrenatzen dugu igandeetan", azpimarratu du. Automozio gradua ikasten dabil, eta praktikak egin behar ditu orain: "Ez da erraza dena uztartzea, baina helburuak betetzen dituzula ikusten baldin baduzu, egindako esfortzuak merezi du".

> "Baldintza onak eduki ditugu. Ibaia zabala da Sevillan, hemen ez bezala"
> **Aitzpea Gonzalez**

Aitzpea Gonzalez unibertsitatean hasi da aurten, Fisioterapia ikasten. Bilbon bizi da, kirolarientzako egoitza batean. Baldintza egokiak ditu, gimnasioa egoitzan bertan duelako, adibidez. Dena den, desabantailak ere baditu bere egoerak: "Gogorra da, entrenatzailearen eta taldekideen falta nabaritzen dut. Bakarrik entrenatzea ez da erraza". Korrika eta igeri egitera joaten da batzuetan, eta pisuak altxatzen eta ergometroan arritzen da, gimnasioan, bestetan. "Gogo handia behar da maila honetan entrenatzeko", aitortu du Ander Legazkuek. Motibaziorik ez zaie falta, momentuz. Selekzioaren dinamikan sartzeak, gainera, bultzada berezia eman die biei.

JON VAZQUEZ, Bidasoa-Irun taldeko jokalaria:

“Errehabilitazioa errepikakorra, aspergarria eta bakartia da”

Bideo saioa du Jon Vazquezek (Irun, 1992), elkarrizketaren ondoren. Taldekideek gogoz hartuko dute arratsalde lasaia. Ezker hegaleko jokalaria, aldiz, entrenatzeko eta lehiatzeko irrikaz dabil. Zortzi hilabete luze eman ditu eskubaloian jokatu ahal izan gabe, lesio larri baten ondorioz. Aurreko lotailu gurutzatua hautsi zuen ekainean, Asobal Ligara igotzeko play off-eko finalerdian.

Ebakuntzaren ondoren, errehabilitazio luzea egin behar izan du. Ligako bigarren itzulia hastearekin batera, ordea, lehiara bueltatu da Jon Vazquez. Villa de Arandaren aurkako neurketan egin zuen debuta Asobal Ligan. Partida hura irabazi egin zuen Bidosoak, eta hurrengoa ere bai, Santanderren, Sinfinen kontra. “Bi garaipen horiek bultzada handia eman digute, datorrenari aurre egiteko”, aitortu du Jon Vazquezek. Pozik dago, taldearen parte baita berriro.

Nola ikusi duzu zure burua, lehiaketara bueltan?

Nahiko arraro, hasieran. Hainbeste hilabeteko etenaren ondoren, ez nuen sinesten berriro lehiatzen ari nintzenik. Erritmoa falta zaidala agerikoa da, baina hobekuntza nabaritu dut partidaz-partida. Hurrengoetan, nire maila onenetik gero eta gertuago egon nahi nuke.

Beldurrik izan duzu?

Kontrakoa, lasaitzeko esan behar izan didate behin baino gehiagotan, indar handiz ari nintzelako. Gogoan dut, taldekideen erritmoan entrenatzen hasi nintzenean, ahul samar sumatzen nuela belauna, eta molestia txiki batzuk ere banituela. Arruntak zirela esan zidaten, hala ere, denbora luzez egon naizelako maila horretan entrenatu gabe. Azken asteotan ez dut inolako minik nabaritzen.

Konfiantza aldetik, ondo al zabiltza?

Lehen neurketan, konfiantza falta sumatu nuen. Hurrengoetan, ordea, gero eta gutxiago. Urduritasuna, gero eta txikiagoa da. Edonola ere, lesio larri baten ondoren, gehien landu beharreko arloetako bat da mentala.

> “Gehien landu beharreko arloetako bat da mentala”

Nola gogoratzen duzu iazko ekaineko igoera fasea?

Ilusio handia genuen denok, eta presioa ere bai. Partidak ez ziren bikainak izan, baina aurrera atera genituen, eta helburua bete genuen. Jakina, niretzat mingarria izan zen finalean ez parte hartzea. Triste nengoen, amorratuta, baina igoeraz gozatu ahal izan nuen, hala ere.

Ebakuntza egin behar izan zizuten, eta errekuperazioa luzea izango zela jakinda ere, zugan konfiantza izan zuen klubak.

Hala da, klubak Iñigo Aldaba harrobiko jokalaria hautatu zuen nire hutsunea betetzeko, eta ondo egin du, gainera. Nik beti sentitu izan dut babesa, bai klubarena, baita zaleena ere. Ez dut kexarik, zentzu horretan.

Gogorra izan al da errehabilitazioa?

Hasieran pazientziaz hartu nuen, baina denborak aurrera egin ahala, gero eta ezinegon handiagoa sentitzen nuen. Lan errepikakorra da, aspergarria, eta bakartia. Taldetik aparte sentitzen zara, haiek bidaiatzen dutenean, adibidez, gimnasioan gelditu behar duzulako. Dena den, medikuek emandako epeak ondo bete ditut, eta horrek indarra eman dit. Taldearen norgehiagokak ikusterakoan, sufritzea egokitu zait.

> “Beti sentitu izan dut babesa, bai klubarena, baita zaleena ere”

Debuta egin duzu Asobal Ligan. Zer da gehien harritu zaituena?

Egia esan, lesioaren ondoren, gehien inporta zitzaidana zen eskubaloian berriro jokatu ahal izatea. Kategoriarena, alde batera gelditu zen niretzat. Nolanahi ere, aurreko urteetan ere Asobal Ligako taldeen aurka jokatutakoa nintzen. Ohorezko B Mailako talde onenen kontra aritzea bezalakoa da, Bartzelona, Naturhouse La Rioja edo sailkapeneko lehen tokietan dauden taldeak alde batera utzita. Oso jokalari onak daude Asobalen, eta erritmoa oso altua da.

Hala ere, Asobalen jokatzea ametsa izango zen zuretzat, harrobiko taldeetan jokatzen zenuenean.

Bai, hala da. Asobal hura ez zen berdina, sekulako taldeak zeudelako, Europa mailako jokalari onenekin. Hainbeste aldatu da egoera, bertako jokalariok goi mailara ailegatzeko aukera gehiago dugula orain. Nik hobby gisa hartu izan dut beti eskubaloia, disfrutatzeko intentzioarekin. Pixkanaka gora egin dut, mailaz-maila, eta honaino iritsi naiz. Zalantzarik gabe, irundarra izanik, Bidasoan eta Asobal Ligan jokatu ahal izateak, balio handia du.

Klubetik atera behar izan zenuen, senior mailara iristean. Bide propioa egin duzu, bueltatu ahal izateko.

Lehen taldeak maila handia zuen niretzat, garai hartan. Horregatik, Hondarribira joatea erabaki nuen, Estatuko Bigarren Mailara. Handik Errenteriako Ereintzara, Lehen Mailara. Talde lehiakorra osatu genuen, eta Ohorezko B Mailara igo ginen. Bertan bi urte egin ondoren, Bidasoaren deia jaso nuen.

Ibilbide biribila: Ibardin-Manddale (573m)-Zigo-rriaga (549m)-Xoldoko Gaina (486m)-Ibardin

GORKA MARTINEZ

unpaisenmimochila.blogspot.com

Mugako hiru tontor txiki igoko ditugu, Xoldoko Gaineko presara jaitsi eta handik irteera puntura bueltatzeko, ibilbide biribila osatuz. Bista ederrak edukiko ditugu: Aiako Harria, Larrun, Txingudiko Badia, Lapurdiko kostaldea...). Gure inguruaz gozatzeko ibilbide erraza da.

Ibardingo gainean ekingo diogu ibilbideari. Berako erdigunetik hamar minutura dago. Bentako saltoki guztiak atzean utzi, eta pistan aurrera egingo dugu, Larrun mendiari bizkarra emanez. Ate berdea pasata, igoera sigisagatsua jarraituko dugu, parean Jaizkibel mendia ikusten dugun arte. Ezker aldera joko dugu, bide estu batetik. Hurrengo bidegurutzean, ezkerrera egingo dugu berriro, maldan gora, Manddale mendiaren tontorrera bidean (573m). Muinoaren beste aldean, Zigorriaga tontorra izango dugu (549m).

Manddalera bueltako bidearen erdian, ezker aldera jaisten den bidexka hartuko dugu. Baso txiki bat zeharkatuko dugu, Xoldoko Gainera bidean. Zenbait bidek bat egiten duten gune batera helduko gara (ordu bete). Eskuin aldera hartuko dugu Xoldoko Gaina tontorrerantz. Kosta aldera jaitsiko gara, mendi-bizkarrean behera, errepide batera ailegatu arte. Bertan hasten den bide estu batean aurrera egingo dugu, borda baten ondotik pasa ondoren, presara iritsi arte. Presako zubia igaro, eta ezker aldera egingo dugu, harrizko pistan aurrera. Hurrengo bidegurutzean, eskuin aldera doan lurrezko pista hartuko dugu. Eguneko azken maldari aurre egin beharko diogu, Ibardinera iristeko.

Distantzia: 11,48 km
Gehieneko altuera: 573 m
Desnibela: 562 m
Denbora: 3 ordu (geldialdirik gabe)
Tontorrak: Manddale (573m) - Zigorriaga (549m) - Xoldoko Gaina (486m)
Zailtasuna: Erraza



San Vicente de Paul HH

bideosare
-> Ikus-entzunezko proiektuak
-> Bideo grabaketa eta edizioa
-> Multimedia
Bideoak zure erara !
bideosare.com

San Vicente de Paul LH3



EUSKARAZ, iRUNEN BARRENA

Irungo P.S. andereari jasoa. Zuzenean hartua (1960-VIII-30). Luis de Uranzuk ere jaso du hau *Diccionario del Bidasoa* delakoan (El Bidasoa, 1959-IX-5). (El Bidasoa, 1960-IX-10)

Jan bai jan

Jan bai jan
ase bai ase
ni bai benpen
zuek ere bai noski
ni bai benpen
nai´zue gei´go?
Nik ez benpen
zuek ere ez noski
nai´zue geigo?
Nik ez benpen.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Abian dira kontzertu pedagogikoak

Martxoaren 10ean izango da hurrengo saioa, Luis Mariano Lirika Elkartearen eskutik

Otsailaren 22an hasi dira Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako Kontzertu Pedagogikoak. Skola Musik akademiak eskaini du lehen emanaldia, Irungo ikastetxeetako 2.DBHko ikasleentzat. Maiatzera arteko egitaraua prestatu du udalak. Emanaldiak goizez izango dira, eskola orduetan, Amaia Kultur Zentroko auditorioan.

Albada Antzinako Musika taldearen ekimenez sortu zen Kontzertu Pedagogikoak programa, duela bi hamarkada. 7 eta 15 urte arteko haurrei eta nerabeei zuzendutako ekimena da (LHko bigarren mailatik, DBHko hirugarren mailara). Zenbait musika taldek kontzertu bereziak eskaintzen dituzte, ikasleen eskola orduetan, Amaia Kultur Zentroan. Programaren helburua azaldu du Josune Gomez Hezkuntza eta Gazteria arloko ordezkariak: “Zirkuitu komertzialetan proposatzen denaren aldean, musika ezberdina entzuteko aukera ematen diegu. Gainera, musikaren alderdi desberdinak ezagutuko dituzte”.

Hiriko ia 4.000 ikasle izango dira entzule eta parte hartzaile, kontzertu pedagogikoetan. Bederatzi kontzertu ezberdin antolatu dituzte, eta hamalau emanaldi egongo dira, guztira, otsailetik maiatzera. Programazioa prestatzerako orduan, ikasleen oporrak eta azterketa garaiak kontuan hartu dituztela baieztatu du Gomezek. Saio anitzak izango dira, estiloei eta taldeen formazioei dagokienez. Abesbatzak, hirukoteak eta talde sinfonikoak ariko dira, adibidez, musika kultua, pop-a, folk-a, rock-a eta jazz-a eskaintzen, besteak beste.

Sola Musik akademiak eskaini du lehen emanaldia, otsailaren 22an, DBHko 2.mailako ikasleei zuzenduta. Akademiako Irene Elizetxeak adierazi du haien helburua zein izan den: “Musika estilo ezberdinak daudela erakutsi nahi izan diegu gaztetxoei. Estilo bakoitzak zertan datzan azaldu diegu, eta bakoitzaren inguruko historia pixka bat ere bai”. Hurrengo saioa martxoaren 10ean izango da, 10:30etan, Amaia Kultur Zentroan. Luis Mariano Elkarte Lirikoak El elixir de amor opera eskainiko du, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleentzat.

EGITARAUA (Amaia Kultur Zentroan):

Martxoak 29: Albada Antzinako Musika taldearen emanaldiak, LHko 5.mailako ikasleentzat. 9:30etan eta 11:0etan.

Martxoak 30: Txistularien Udal Bandaren saioak, LHko 3.mailako ikasleentzat. 9:30etan eta 11:00etan.

Apirilak 26: piano eta biolontxelo kontzertuak, LHko 2.mailako ikasleentzat. 9:30etan eta 11:00etan.

Maiatzak 3 eta 4: Donato Goyeneche Trio taldearen saioak, DBHko 1.go mailako ikasleentzat. 10:30etan.

Maiatzak 10: Ametsa Txiki abesbatzaren emanaldiak, LHko 4.mailako ikasleentzat. 9:30etan eta 11:00etan.

Maiatzak 24: Udal Kontserbatorioko orkestraren kontzertua, DBHko 3.mailako ikasleentzat. 10:30etan.

SARE SOZIALAK ETA APPAK ERABILI LANA AURKITZEKO!!!

Enpresek langileak bilatzeko erabiltzen dituzten tresnak aldatu egiten ari dira; besteak beste, teknologia berrien ondorioz.

Sare sozialak eta APPak (sakelako telefonorako aplikazioak) gorantz ari dira, eta eskura ditugu. Horregatik, ikastaro honetan, ikasiko duzu nola kudeatu behar dituzun zuk nahi duzun lana aurkitzeko. Jakingo duzu zein diren APP interesgarrienak, sakelako zure gailuan instalatu ahalko dituzu, eta lehenengo pausoak ematen ikasiko duzu.

Egunak: otsailak 27,28 eta martxoak 2.

Ordua: 9:30 - 13:30.

Lekua: El Espazio (Anaka, 12).

Informazio gehiago:
www.elespazio.com edo 943 633 160 telefonoan.

FARO BEKAK. NAZIOARTEKO PRAKTIKALDIETARAKO PROGRAMA UNIBERTSITATE IKASLEENTZAT

Lekua: Europa, Ameriketako Estatu Batuak, Kanada, Asia eta Ozeania.

Iraupena: 5-6 hilabete.

Data: Hasteko epe muga 2017ko abenduan.

Zenbatekoa: Herrialdearen arabera aldatuko da.

Baldintzak:
- Ikaslea izatea estatuko unibertsitate batean: Gradu, Lizentziatura, Ingeniaritza, Ingeniaritza tekniko, Arkitektura edo Arkitektura teknikoko ikasketetan matrikulatua egotea.
- 30 urte baino gazteagoa izatea.
- Titulua lortzeko beharrezko diren kredituen %70 gainditua izatea.
- Mugikortasun beka bat lehenago jaso ez izana (Argo, Faro, Integrants).

Epea: 2017ko abenduak 31.

TURISLAN. NORAKORIK APROPOSENA LAN BILA DABILENARENTZAT

Turismoaren sektorean lan egin baduzu edo turismoarekin lotutako zerbait ikasi baduzu, hauxe da zure norakorik egokiena.

Noiz: 2017ko martxoak 27 eta 28.

Ordutegia:
martxoak 27: 9:30-14:00 eta 15:30-17:30.
martxoak 28: 9.30-14:00.

Lekua: FICOBA (Iparralde hiribidea, 43, Irun).

Bidali curriculuma martxoaren 1etik 10era bitartean.

Informazio gehiagorako:
http://turislan.ficoba.org

Turislan
Gipuzkoako Turismo Enpleguaren 1-go Feria

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

GENERO IKUSPEGIDUN COUCHING-A TAILERRA

Emakumeentzako ahalduntze eskola

Baduzu proiektu bat, amets bat, asmo, gurari bat.. gauzatu nahi duzuna, eta ez dakizu nola ekin? Helburu nagusia pertsona bakoitzaren trebetasunak ahalik eta ongien garatzea da, proposatutako helburuak lortzearren. Adin guztietako emakumeei zuzentzen zaie ikastaro hau.

Datak: martxoak 6, 13, 20 eta 27 eta apirilak 3.

Ordutegia: 17:00-19:30.

Lekua: Palmera Montero gunea (5. aretoa).

Matrikula: 8 €.

Izena emateko epea: martxoak 1.

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain

Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak, kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...
Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, sarbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf. 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

Martxoak 2

Zer? 08:45 komunikazio jardunaldiaren 8. edizioa - trenbidea Irunen.

Ordua? 20:000etan.

Non? Amaia KZ. Pio XII, 4.

Prezioa: Doako sarrera. Aurretik izena eman behar da.

Izen-ematea emailez: jornadaffccirun@hotmail.com

Telefonoa: 943 667 788.

Martxoak 12ra arte

Zer? Margolanen erakusketa Colon Ibilbideko Laboral Kutxan. Maria Maldonadoren Akademiako lanak egongo dira martxoak 12ra arte.
Ordutegia? Astelehenetik larunbatera: 18:00-21:00; Igande eta jaiegunak: 11:30-13:30

Non? Colon Ibilbidea, 13

Prezioa: Doako sarrera.

Martxoak 5

Zer? Mutxikoak eta dantzak.

Non? San Juan Plazan.

Ordua? 12:00-13:00.

Prezioa: Doan.

Antolatzailea:
Meakako Adixkideak.

Martxoak 7

Zer? “Henna tatuaiak eta mandalak” tailerra Martindozenea Gaztelekuan 16 -22 urte bitarteko nerabeentzat zuzendua.

Ordua? 18:00 - 19:30.

Non? - Martindozenea gaztelekua - Elizatxo, 18
- Igazte, OIJ - San Juan Arria plaza -1 solairua (CBA Liburutegia).

Prezioa? Doan.

Izena emateko: Martxoaren 6ra arte.

Telefonoa: 943 636 826.

Webgunea:
http://www.irun.org//enlaces/00035190.pdf

Martxoak 9

Zer? Irungo Irakurle Taldea hilean behin biltzen da Yurre Ugarte idazlearen gidaritzapean. Parte hartzaileek irakurri duten liburu bati buruz hitz egiten dute saioetan. Eider Rodriguezen "Haragia" izango da irakurgaia.

Ordua? 19:00.

Non? CBA Udal Liburutegia San Juan plaza, -1 solairua.

Salmeta:
- Telefonoz: 943505421. Ordutegia: astelehenetik ostiralera 9:00-20:00; Larunbatak: 8:30-13:00

- Zuzenean: CBA Udal Liburutegia.

Prezioa: Doan .

Martxoak 9

Zer? Ipuin Errepublikanoak. "Nicolas Gerendiain" elkarte errepublikanoak antolatzen du eta Carlos Perez Aradrosek kontatuko ditu ipuinak.

Non? Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoa
Sargia, 1, atzealdea.

Ordua? 12:00-13:00.

Prezioa: Doan.

Telefonoa? 943 635 333 / 630 313 642.

Martxoak 11

Zer? Ama Xantalen ermitako ikustaldi gitadua (Oiasso erromatar museoa). Aurretik erreserbatu egin behar da.

Non? Oiasso Erromatar Museoa, Eskola, 1.

Ordua? 11:00

Prezioa: Helduak, 5,40 € / Haurrak (7-14), 3,70 €



MEAKAKO ADIXKIDEAK DANTZA TALDEA IRUN

Félix Manso

IBARLA

- ✓ Eguneko menua
- ✓ Karta
- ✓ Dastatze menua
- ✓ Pintxoak eta errazioak
- ✓ Bertako produktua, freskoa eta sasoikoa
- ✓ Jatetxe apaina, zaindua, erosoa...
- ✓ Terraza zabala barruan eta kanpoan...
- ✓ Leku eguzkitsua eta lasaia, inguru zoragarri batean
- ✓ Ospakizun txikientzeko leku aproposa

943 841 964 Meaka Auzoa, 9, Irun www.felixmanso.com